

Arabak gonbidapena egin du bere izaera, ondarea eta enogastronomia auto elektrikoan ezagutzeko

Baliabide turistikoak eta kargagailuak lotzen dituen gidaliburu bat aurkeztu du FITURen

Cristina González: "proiektu honek gero eta eskari handiagoari erantzuten dio, eta gure politikekin turismo jasangarri eta arduratsua lortzen laguntzeko dugun borondatea islatzen du"

Gasteiz, 2021eko maiatzaren 20a. Arabako Foru Aldundiak gaur aurkeztu du Nazioarteko Turismo Azokan (FITUR) lurraldearen natura, ondarea eta enogastronomia auto elektrikoan ezagutzeko gidaliburu berria. Argitalpenak baliabide turistikoak eta kargagailuak lotzen ditu, eta oso tresna erabilgarria eskaintzen dio bidaiariari bere ibilgailuaren bateriez kezkatu gabe gozatzeko.

Cristina González bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko foru diputatuak eta Javier Hurtado Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak proposamen hori aurkeztu dute, eta lehenengoak azpimarratu duenez, "ibilgailu elektriko puru eta hibrido entxufagarrien merkatuan gero eta handiagoa den une batean sortu da. Auto elektrikoen salmenta bikoiztu egin zen 2020an; aldiz, errekontza motordun ibilgailuen salmentek, berriz, beherakada handia izan zuten".

"Proiektu honek gero eta eskaera handiagoari erantzuten dio, eta horretarako prest egon behar dugu, eta gure politikekin turismo jasangarri eta arduratsua lortzen laguntzeko dugun borondatea islatzen du, bat etorritz Eusko Jaurlaritzaren, Espainiako Gobernuaren eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuen estrategiarekin", erantsi du.

Gonzálezek ekimen hori "arabarraren ingurumen kontzientzia" rekin lotu du, eta gogorarazi du Mercedes Benzek Gasteizen duen lantegiak duela bederatzi hilabete egin zuela historia, munduan seriean fabrikatutako lehen monobolumen handi % 100 elektrikoa mihiztatu zuenean. Ibilgailu horrek VITO EQV Arabako hiriburuaren izena darama bere izenean. Lehenago, 2019ko apirilean, Arabak Espainiako lehen karga puntu ultra azkarra inauguratu zuen".

Ibilgailu elektrikoaz ibiltzeko bideen gidaliburu berri horrek jarraipena ematen dio ibilbide horri, nabarmendu du foru diputatuak, eta Araba lehen lurralde eta helmuga bihurtu du "baliabide natural, ondarezko edo enogastronomikoetatik hurbil dauden karga azpiegituretan oinarritutako proposamen turistikoarekin. Gainera, kokaleku bikain batean gaude turismo jasangarri eta berdean erreferentzia puntu bat izaten jarraitzeko".

Javier Hurtado Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak adierazi duenez, Euskadik "jasangarritasunaren aldeko apustua egiten du, bere politika turistikoaren ardatz gisa, eta Arabako ibilgailu elektrikoko ibilbideak horren adibide onak dira, eta bide horretan lerrokatuta gaude. Jasangarritasuna balio erantsi gisa ikusten hasi behar dugu bidaiariaren esperientzian, gero eta bisitari gehiagok eskatzen baitituzte helmuga jasangarriak eta hura barne hartzen duten bidaia aukerak".

Kargagailu sarea

Argitalpen horrek bere 52 orrialdeetan lurraldeko eskualde guztiak korritzen ditu, kargagailu sarea lokarri duelarik, eta bateratzen ditu ibilgailuko bateriak energiaz kargatzeko argibide praktikoak eta honako hauekin "bidaiaria energiaz kargatzeko" ideiak: Erdi Aroko hiribilduak, parke naturalak, historia eta kultura ondarea, ibilbide berdeak, aire zabaleko jarduerak, esperientzia enogastronomikoak, leku paregabeak, hala nola Gatz Harana edo Nerbioiko ur jauzia, eta abar luze bat".

"Helburua da bidaiariaren eskura plangintza tresna bat jartzea, ondare baliabideak, naturaguneak eta interes enogastronomikoko lekuak lotzeko errespetuzko eta ingurumen jasangarritasuneko irizpideak oinarri. Bisitatzeko gaituztenei edo etorkizunean gu bisitatzeko asmoa dutenei ikusarazi nahi diegu posible dela Araban bidaiatu eta Arabaz gozatzea atmosferara CO² igorri gabe. Mugikortasun jasangarriaren eta turismoaren konbinazioa errealitate bat izan daitekeela, bihar-etzira itxaron gabe", azaldu du.

Gidaliburua, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez argitaratua, jada formatu digitalean eskuratu daiteke alavaturismo.eus Arabako web atariko deskarga sailean, eta hurrengo egunotan paperezko formatuan ere eskuragarri egongo da Arabako udalen eta eskualdeen turismo bulego guztietan. Argitalpena ikus-entzunezko batekin osatuko da, azoketan, sare sozialetan eta beste euskarri batzuetan zabaltzeko.